



Azucena Vieites

Ustekabea eta askatasuna



Xabier Gantzarain

@gantzarain

FUNDIDO ENCADENADO-BREAK YOU NICE (2012)

Serigrafia paper gainean. Neurri aldakorak.

Azken urteotan Madrilén bizi da Azucena Vieites García (Hernani, 1967ko ekainaren 13a), Salamancan eta Complutensen dabil irakasle. Garai batean umeentzako tailerrak ematen zituen, irakatsi baino gehiago ikasten zuela zioen. Reina Sofia museoan egindako bakarkako erakusketan jarri zituen lanok: bere marrazkiak eman eta margotzeko eskatu zien umeei. Erakusketa bukatzean ume bakoitzak bere lana etxera eraman zuen.

Ustekaberako gaitasuna, konbentziorik eza, askatasuna, hizkuntza eraikitze-ko ahalmena gustatzen zitzaion umeen margotzeko modutik. Bere lanak ere antzeko ezaugarriak izan ditu beti. As-

katasun harrigarritz josten ditu handik eta hemendik hartutako txatalak, beti ere ikusizko kultura garaikidearen kodeak erabiliz, irudietan esku hartuz, collageak eginez askotan. Fanzineetatik eta Zuk-zeuk-egin kulturatik edan du, nabari zaio lanean.

Azucena Vieitesen lanean ardatza izan da feminismoa. 1994an Erreakzioa/Reacción kolektiboa sortu zuen Estibaliz Sadabarekin batera, eta urte askoan aritu ziren lanean, Arteleku hartuta epizentro. Hantxe antolatu zuten, 1997an, *Zure begientzat soilik: faktore feminista ikusizko arteetan* mintegi-tailerra, gerora ere ubera utzi zuena. Jende askorentzat mugarrira

izan zen arte munduko debate feministan.

Bizi gaituen garaia harrapatu nahi du artistak bere lanean, ikusizko kultura batik bat, handik eta hemendik jasotzen ditu irudiak, moldatu egiten ditu, ebaki, aldatu, beste modu batera josi, beste esanahi bat eman munduari bere jardunarekin.

Artistak ongi daki: irudiak eraiki egiten dira. Eta berezkoak diruditen horietatik dira eraikienak, bestela bezala agertzen direnak, normalak bailiran ekartzen dizkigutenak. Xedea ez da eraikitakoak direla erakustea soilik, hautsi eta beste zerbait esatera behartzea baizik. ■